

KONTU ZAHAR EZ HAIN ASPALDIKOAK

(doinua: habanera)

I.- Urtero legez zetorren
aurtengo ALBE eguna,
eta bertso jarri eske
hara Xabiren gutuna;
nahiz eta koipe-kiratsa
zitekeen mezuan suma,
ALBE tarteko, behar nion
eman baiezko erantzuna.
Etsian piztu ondoren
tramankulu tekladuna,
jabetu naiz kontu zaharrez
gainez dudala garuna;
beraz aspaldiko gauzez
da nire gaurko jarduna;
arkeologia saioa
ez ahal dagizue astuna!

II.-Dagoeneko aspalditxo
ama zen nitaz erditu;
ez klinika, ez ospitale,
nintzen mundura argitu;
berekala bataioa,
ezinbesteko erritu,
ez dakit nola zitzaien
nire izena okurritu!
Auzoan inork ez zuen
horrelakorik aditu:
mutiko izanda, Karmen
nola ahal diote deitu?
Baina laster izenera
auzokoak ziren ohitu...
(e)ta zapaburu koskorra
pittinka egin zen txantxiku.

III.- Gure etxea zegoen
erreka baten ertzean,
mendi-hegalaren hondoan
leku nahiko laiotzean:
behi bat, astoa, oiloak,
txerri bat hazi urtean,

aza, porru ta patatak
han gertuko baratzean.
Ez zen baserria nahiz (e)ta
egon baserri artean:
aita bizikleta hartuta
ateratzen zen goizean
fabrikan eguna emanda
itzultzeko arratsean:
ekonomia mixtoa
zegoen gure etxean.

IV.- Ni neu fortunatu nintzen
amaren seme nagusi,
gero gehiago izan ziren,
ume bat urtero kasik;
bi osaba (e)ta aittajuna,
gurekin han ziren bizi;
denen ardura zitzaion
amari gainera jausi:
otorduen karga hartu,
arropa errekan ikuzi,
fraka edo alkandora
inork behar bazu(e)n josi...
Lanez eta nekez enpo,
bestela, zenbat gabezi!
Patriarkatua zer den
larrutik zuen ikasi.

V.- Lau urte bete aurretik
aldatu zen panorama:
kalera eramanez ninduten
amaren ahizparengana,
umeak izan nahi arren,
halakorik ez zeukana,
arintzen zen, bide batez,
amaren gaineko zama.
Ez dut unea gogoan,
nola burutu zen plana,
malkoak izango ziren
baina ez negar andana;
dena, seguru, neurrian,
muxu eta "adio, laztana":
benetako euskaldunek
ez dute gustuko drama.

VI.- Izeba-osabak ninduten
hartu semetxo modura,
le(he)ngusuak ere banitu(e)n
etxe berritik eskura;
dena zen berri niretzat,
dena ikusmin, abentura,
jendearen joan etorria,
eskaparate(e)n lilura,
zapataria lanean,
bertan gertutik gertura,
aguazilaren pregoia...
ikuskitzuna nongura,
eta aldiro sumatzen
zen txokolate usain hura...
errez egokitu nintzen
kaleko bizimodura.

VII.- Maristek zuten eskolan,
egin ninduten bezero,
Kristo eta Franco(re)n aldeko
sotana eta babero;
rojiguldari genion
kantatu behar goizero
denok ilaran jarrita
patioan lerroz lerro.
Eskribitzen ikasi nu(e)n,
idazluma eta tintero,
beste ikasgai ugari,
euskara arrastorik zero...
Itxuran moldatzen nintzen,
nota txukunak urtero,
eskola hartan egon nintzen
bukatu arte "*tercero*".

VIII.-
Handia zen gure artean
Elizaren boterea:
zer sinistu, nola bizi,
hark jartzen zuen legea;
errosario eta meza,
aitortza eta jaunartzea,
horrela urratzen genuen
salbaziorako bidea,
Egun baten eskolara

Arantzazutik fraidea,
seminarioa hornitu
ekarri zuen xedea;
eskaini zigun aukerak
zirudien ezin hobea,
hamabi apuntatu ginen,
ondo bete zuen sarea.....

IX.- Hamar urtetan ixten dut
kontu zaharren kanila;
baina ez pentsatu naizenik
pleistozenoko fosila.
Hona ekarri ditudanak,
ALBEko gazte koadrila,
ez dira historiaurrea
baizik iragan hurbila.
Urte gutxitan munduan
zelako aldaketa pila!
Sendo itxurako habeak
bihurtu ziren txirbila,
eta ahalegindu gara
zerbait berriaren bila
aldetik kendu ezinda
ume garaiko motxila.